

# BIZKAIKO DANTZARI EGUNA GETXO

2011 MAIATZAK 15

[www.dantzaret.net](http://www.dantzaret.net)



© kukuxumusu  
+ bokart.com

Danza de Varas

bbk =

# Egitaraua—Programa

**MAIATZAK 2tik – 28rarte**

**EUSKAL JANTZIEN ERAKUSKETA**

Getxoko TORRENE Aretoan

**MAIATZAK 8, Igandea**

**Getxoko dantza taldeko dantza ekitaldia**

Goizeko 12:00etan, AREETAko Geltokiko Plazan

---

**MAIATZAK 15, Igandea**

11:00 ALGORTAKO GELTOKIKO PLAZATIK Taldeen Kalejira.

11:30 FADURAN Dantza Taldeen Ekitaldia

**DANTZARI DANTZA**

Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata Joko Txikiak, Banangoa, Binangoa, Ezpata Joko Nagusia, Launangoa, Makil Jokoa, Txontxongiloa.

**GIPUZKOAKO DANTZAK**

Agurra, Zinta dantza eta Uztai Haundi dantza

**DANTZARI ERTAINAK - TXIKIAK**

Txulalai, Zapatain dantza, Xan Petrike dantza eta Esku dantza.

**ELTZIEGOKO DANTZAK**

Correcalles, La Danza, Cuatro Calles, Arbol, Jota

**GORULARIAK**

Domingiloa eta Arku dantza

**DANTZARI ERTAINAK - TXIKIAK**

Zazpi Jauziak, Antzina Pika eta Hegi

**KAIXARRANKA**

**LARRAIN DANTZA**

17:00 ERROMERIA Luhartz taldearekin ANDRA MARIko Kiroldegiko atzeko parkean(\*)

**Egunean zehar:**

- Umeentzako Puzgarriak, tailerrak...

**(\*) 14:00etatik 21:00rarte AUTOBUSAK IZANGO DIRA FADURA ETA ANDRA MARI ARTEAN**

# DANTZARI DANTZA

*Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata Joku Txikia, Banangoa, Binangoa, Ezpata Joku Nagusia, Launangoa, Makil dantza, Txontxongiloa*



Herriko jaiak hurbil dituztelarik, Durangoaldeko gazteek Dantzari dantza prestatzen hasten dira. Hauek mendeetan zehar egin diren dantzak ditugu. Jai bezperan arbola jarri behar da, Donienatxa, plazan, zortzi dantzariak partaide direlarik. Agintarien aurrean herriko ikurrina daramatela aurkezten dira Agintariena dantzatzuz. Bakarko, binako, launako eta denon arteko dantzak, ezpata joku eta makil jokuekin batera osatzen dute saioa. Amaitzeko txontxongiloa dantzatzuz.

En los pueblos del Duranguésado al acercarse las fiestas patronales, los jóvenes comienzan con la preparación de la Dantzari-Dantza. Son Danzas que han venido realizándose desde hace siglos. La víspera de las fiestas hay que colocar el árbol en la plaza, Donienatxa, participando los ocho dantzaris en ello. Bailando Agintariena o saludo a las autoridades, portando la bandera local, se presentan ante las mismas. Danzan de uno, dos cuatro y de todo el grupo, junto a las de espadas y palos formando la serie que finaliza con el Txontxongiloa.

# GIPUZKOAKO BROKEL DANTZA

*Agurra, Makil Txiki, Zinta dantza*



Ezpata dantzarekin batera, Gipuzkoako herri askotako jaietan garrantzientariko dantza da. J.I. Iztuetak bederatzi dantzak osatzen dutela diosku. Batzuk makilekin, bai txiki bai haundi, dantzatzuz, baita brokelekin ere, zinta jokoarekin amaituz. Mutil gazte, eginkizunerako ondo jantziak, eta aurretik lan haundiz antolatuak dantzatzen dituzte. Batzutan taldeak herrí ezberdinetan dantzak eskaintzen ibiltzen ziren, eta honela, 1858. urtean , Bilboko zezen plazan, Gipuzkoako talde batek herri honetako dantza hauek dantzatu zituzten.

Es, junto a la Espata Dantza, la serie de danzas más importante en fiestas de muchos pueblos de Gipuzkoa. J.I. Iztueta nos habla de nueve números de danza, algunos con palos, tanto pequeños como grandes, así como broqueles, finalizando con el juego de cintas. Todo ello realizado por jóvenes, bien vestidos para el momento, que habían de prepararse con bastante antelación. A veces se daban cuadrillas de danzantes que se trasladaban a fin de ofrecer sus danzas a otros lugares, así en 1858 bailó en Bilbao una "Comparsa guipuzcoana de baile o de batallas antiguas".

# *DANTZARI ERTAINAK eta TXIKIAK*

## **OLAGUEKO ESKU-DANTZA**

Aita Olazaranek aurkeztutako joko-dantza sortan Olagueko esku-dantza ere aurkitzen dugu. Nafarroako Mendietan jaso dira. Dantza horiek eginez jolasten ziren gazteak neguko gau-ekitaldi luzeetan. Olagueko esku-dantza oso bizia eta alaia da. Hiru zati desberdin daitezke bertan. Parte batean oinekin egiten da dantzan, arin-arinaren antzeko pausuak egiten direlarik. Beste parte batean eskuak erabiltzen dira, eta hirugarrenean eskuekin eta oinekin egiten da.

Dentro del ramillete de danzas juego que nos presenta el Padre Olazarán también encontramos ésta. Son recogidas en la Montaña Navarra y han servido de esparcimiento y diversión a los jóvenes muchachos reunidos durante largas veladas invernales. Es una danza viva y alegre que tiene tres partes diferenciadas. Una bailada con los pies, realizando ciertos pasos que se asemejan a los del arin-arin de nuestra jota, otra en que se golpean las manos y la tercera en que la danza se realiza jugando con pies y manos.

## **JAUZIAK**

Euskal Herrian eutsi izan zaien dantzetatik inportanteenetakoak biribilean jarrita egindakoak dira. Ardatza zirkuluaren erdia da eta dantzariak erdi horren inguruan egingo dute dantzan, elkarri heldu gabe, dantzaren pausuak aldi berean eginez. Mutil-dantza eta jautziei buruz ari gara. Dantza mota bat osatzen dute, ezaugarri bereziekin, eta beste dantzetatik ondo berezita daude.

Los jauziak, bailados principalmente en las tres provincias de Iparralde, junto a las mutil-dantzak de Baztán, constituyen una serie de danzas de unas características particulares que las distinguen perfectamente de las demás. Se bailan en corro, donde el centro del mismo constituye el eje alrededor del cual se desplazan los dantzaris, sin ningún enlace entre ellos, ejecutando al unísono pasos de danza.

# ELZIEGOKO DANTZAK

*Correcalles, La Danza, Cuatro Calles, Arbol y Jota*



Plazako Andramari egunean, herriko zaindari egunean, dantzariek Amabirjinaren irudiari dantzekin laguntzen dioten prozesio ederra izaten da. Dantzari gazteek, herriko parrokiatik jira egin ondoren, ermita alboan, irudiaren aurrean dantzatzen dute. Pasakalles, dantza, kuartokalles, arbol eta jota egiten dira. Guda izan zen arte gizonezkoek dantzatuak ziren. Geroztik dantzen ohitura andrazkoak berriztatu zuten eta hauek hasi ziren dantzatzen, batzutan mutilak laguntzen diete, dantza batzuk mutilak beste batzuk neskak eta alkarren artean dantzatuz.

La Villa de Elciego ha conservado la tradición de bailar anualmente el 8 de Septiembre, día de la patrona del pueblo, la Virgen de la Plaza. Sale la solemne procesión, en la cual los danzantes acompañan a la Virgen con sus bailes. Al llegar de vuelta de la parroquia, junto a su ermita y ante la imagen, danzan los jóvenes bailarines. Realizan el pasacalles, la danza, las cuatrocalles, el arbol y la jota. Hasta la guerra civil, las danzas eran realizadas por los hombres, luego fueron las mujeres las que recuperaron la tradición, siendo, a veces, acompañadas por chicos actualmente.

# GORULARIAK

## *Arku dantza eta Domingiloa*



Hiru dantzaz osatua da Durangon egiten den Gorulari dantza multzoa: lino lanari buruz egindako estampa, arku dantza eta Domingiluen dantza. Azken biak lehenagokoak dira Durangon, batez ere Domingiluen dantza, herriaren kontu agirietan gaztu ordainketak agertzen baidira. Orain, 1886 urte geroztik, neska mutilen artean egiten dira. Lehenago bata neskak egina zen eta mutilak bestea.

Consta de tres danzas la Comparsa de Hilanderas que se realiza en Durango: la estampa sobre el trabajo del lino, la Danza de Arcos y la Danza del Domingilo. Las dos últimas son antiguas en Durango, sobre todo la Danza del Domingilo, puesto que aparecen en pagos de las cuentas de la Villa. Actualmente, a partir del año 1886, son realizadas por un grupo mixto. Antiguamente una era realizada por muchachas y por chicos la otra.

# *DANTZARI ERTAINAK eta TXIKIAK*



## **JOLAS DANTZAK**

Irri-dantzak edo joko-dantzak, geure herrietan, soinuaren eritmoaz egindako jokoak ditugu. Partehartzaileak gazteak diren joko herritarrak dira, eta euskaldunak erritmoz eta barregarri agertzen den poztasun garbiz jokatzeko kapaz izan direla garbi agertzen du. Negu inguruko gaupasa luzeak edo plaza eta tabernetako batzarrak entretenigarriak izateko, dantza hauek egiten dira. Euskal Herri guztian izan dira baina Nafarroa aldean biziagoak eta ugariagoak ditugu gaur egun.

Las danzas-juego o "irridantzak" son aquellos juegos que al son de melodías se han realizado en nuestros pueblos. Son diversiones populares en que toman parte los jóvenes y que demuestran que el vasco también se ha entretenido con sencilla alegría de forma rítmica y graciosa. Estas danzas sirven para entretener las largas veladas del invierno o las reuniones en las plazas y tabernas. Han existido en todo el País pero es en la zona de Navarra donde se han conservado mas vivas y abundantes.



# KAIARRANKA



Lekeitioko itsas-gizonen Kofradikoek, kaixa aldaketan bere aginte edo maiordomoaren izendatze edo agintea hartzerakoan ritualaren zeremoni garrantzizkoena izan dute. San Pedro egunean, orain, kaixa gainera, frak eta txistera bat eta eskuan San Pedroren sinboloa duen bandera batekin gizon batek gora egiten du, Honela hiru tokitan dantzatuko du.

La cofradía de Mareantes de Lekeitio ha tenido en el traslado del arca la ceremonia más importante en el ritual de nombramiento y toma de posesión de sus regidores o mayordomos. Actualmente, el día de San Pedro, sube un hombre con frac, chistera y en su mano una bandera con los atributos del santo. Bailando en tres lugares distintos.

# LIZARRAKO LARRAIN DANTZA



Gaur egun LIZARRAKO LARRAIN DANTZA da nagusi, herriko jaietan. LIZARRAKO LARRAIN DANTZA dantza mistoa da eta biribilketan egiten da; ingurutxoak bezala, gizarte dantza da, baina berezitasun nabarmenak ditu berregin zenez geroztik. Zazpi dantzaz osatuta dago eta, ondorioz, "suite" izaera dauka: *Pasacalles*, *Cadena*, *Fandango*, *Vals*, *Jota Vieja*, *Boleras* eta *Correcalles final* (horiez gain, sarreretarako gaita erabiltzen da).

Por la Fiestas Patronales de Estella, hoy en día, su danza por excelencia es LIZARRAKO LARRAIN DANTZA, danza mixta y de recorrido circular, emparentada con los ingurutxos en lo referente a su carácter social, pero con notables peculiaridades desde su definitiva estructuración. Su ejecución consta de siete piezas que dan a la danza un carácter de "suite", *Pasacalles*, *Cadena*, *Fandango*, *Vals*, *Jota Vieja*, *Boleras* y *Correcalles final*, además de las introducciones de gaita.

## *IKASTAROAK*

### **DANTZA IKASTAROA CURSILLO DE DANZAS POPULARES**

*Oinarrizko maila / Nivel Básico*  
*Erromerietako dantzak / danzas de romeria*  
*Dantza plaza / danzas de plaza*  
*Jota – Arin arin*  
*Larrain dantza / Baile de la Era*

### **GAITA IKASTAROA CURSILLO DE GAITA**

### **TRIKITRIXA IKASTAROA CURSILLO DE TRIKITIXA**

### **PERKUSIO IKASTAROA CURSILLO DE PERCUSION**

*Txalaparta, Panderoa, Atabala, Danborra...*

*Ordutegi malguak / Horarios flexibles*

*Informazio gehiago / Más información*

## **BIZKAIKO DANTZARIEN BILTZARRA**

*Luis Briñas kalea 31, behea*  
Tf/Fax: 94 441.85.63 – 649.647.483  
48013 Bilbo  
e-mail: dantzanet@gmail.com



Bizkaiko  
**Dantzarien**  
Biltzarra



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO



metro bilbao



noticias  
GRUPO TALDEA

**bbk** =